

***EUSKERA-K*, EUSKALTZAINDIAREN AGERKARIAK: IA 100 URTE**

Munduko Hizkuntza Akademia guztien antzera, Euskaltzaindiak ere, 1919an sortu zenetik, bere agerkari ofiziala du: ***Euskera*** deritzona. Bertan Akademiak bere jardueren aktak, erabakiak, aholkuak, erregelak, argibideak eta ikerlanak argitaratzen ditu, bai eta omenaldi eta bestelako ospakizunetako hitzaldiak ere, jakingarri hauek guztiok herritar guztiengana heldu ahal izateko. Egunotan Bilboko Liburu Azokan Areatza pasealekuan erakusketa bat jarri du Euskaltzaindiak, Akademiaren aldizkariaren historia gogoratzeko.

Gaur euskara Euskal Herriko hizkuntza ofizialetako bat izan arren, mende askotan, administrazio, eskola eta hedabideetako ateak erabat itxita izan ditu. Euskaltzaindia bera ere katakonbetan zokoraturik egon da luzaro. Egoera hori ere ***Euskera*** agerkarian islatu da, urte askotako hutsune eta isilaldi ozenaz. Ekaitzari, ordea, argitasuna ohi darraio, eta, denbora aurrera joan ahala, bai euskarak eta bai bere Akademiak ere denbora hobeak ezagutzeko zoria izan dute. Lehenik ikastolen sorrera, hasieran, denbora heroikoetan, klandestinoak, baina geroago eta ausartago, ageriago, harroago, guraso, irakasle eta herritar askoren ahaleginei esker. Hor ere Euskaltzaindiak garbi ikusi zuen aurrean desafioka zeukan erronka: hizkuntza batu estandarra prestatu eta euskal gizarteari proposatzea.

Hasieran irizpideak bateratu beharra zegoen: tokian tokiko hitz ezberdinak bildu, sinonimoak azaldu, balio berezirik gabeko aldaki, hitz laburtuak eta berba arruntegiak baztertu, kultur hitzak nazioarteko altxorretik hartu ala euskal erroetatik sortu behar ote ziren erabaki, era horretako hitzak sortzeko baliabideak zeintzuk ziren argitu, oker edota desegokiro asmatuak salatu, jendearen begiak autore klasiko fidagarrien obretarantz gidatu, eta aldizka arauak eta erregelak eman, irakasle eta erabiltzaile guztiei laguntzeko gogoaz.

Euskaltzaindiaren lana, ***Euskera*** agerkarian ageri denez, bertoko jendearen premiak betetzeko asmoz pentsatu eta burutua izan da, beti ere. Helburua hauxe zen: Euskara, mende askotako debeku-egoeragatik euskal gizarteko klase apalenen mintzaira izatera beheratua, gaur egungo mintzabide egoki eta, baserri, mendi eta itsasaldeko hizkuntzaz gainera, kaleko eta kultur arloko adierazpide zehatza ere izatea. Premia larri hori ikastolen sorkuntzarekin nabarmen agertu zen Horregatik, euskaraz idazteko alfabetotik hasi, deklinabide, morfologia eta aditz-sistemarekin segi, eta sintaxia, onomastika, toponimia, herri-hizkerak eta literatura arloarekin dihardu lanean, beti aurrera, gure

mintzairak administrazioan, irakaskuntzan, ikerketan eta hedabide mintzatu zein idatzietan aurkitzen dituen zailtasun eta oztopoak gainditzera laguntzeko.

Teknologia berriek eta, bereziki, informatikak, laguntza estimagarria eskaini digute azken hamarkadetan, hitzik erabilienak eta ezagunenak zeintzuk ziren jakin eta horiexek eredutzat gomendatzeko. Ezin ahanzi, ordea, euskalki tradizional zaharrak, eta horiek ere, batasunaren uholdean desegin baino lehen, bildu beharra izan dugu, Hizkuntza Atlasean datozen belaunaldiek aldaki horien guztien berri izan dezaten. **Eusker**a agerkaria ere gaurko parametroetara egokitu da azken urteotan.

Baina lana ez da hor amaitzen. Hizkuntzak zuhaitz biziak dira, egunero abar, hosto eta lore berriak ematen dituzte eta horiei ere kasu egin behar zaie, kima okerrak gidatuz eta inoiz gehiegizko puntak moztuz ere bai, ongi eta zuzen haziko badira. Hizkuntzaren arbola zaintzen segitu beharra dago.

Erakusketa honetan, bere agerkariaren bitartez, orain arte egindakoa jendeari azaldu nahi izan dio Euskaltzaindiak, gainera behintzat, eta beren lan desinteresatuarekin euskarari hainbeste lan-ordu eskaini dizkioten euskalari eta euskaltzale guztiei eskerrak eman ere bai.

Xabier Kintana
Euskaltzaindiaren Idazkaria